

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Lehendakariak eta Fabrice Deloye kontsul frantsesak Nafarroa euroeskualdean sartu izana aztertu dute

Uxue Barkosek Frantziako Gobernuarekin harreman onak izateko interesa helarazi dio

Lunes, 08 de febrero de 2016

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos eta Bilbon dagoen Frantziako kontsul Fabrice Deloye bildu dira gaur goizean Nafarroako Jauregian. Beste gai batzuen artean, Nafarroa gaur egun Euskadik eta Akitaniak egun osatzen duten [euroeskualdean](#) sartu izanak eragindako itzaropenak aztertu dituzte, honako gai hauei dagokienez: elkarren arteko garapena, kohesio ekonomiko, sozial eta kulturala; edo Europako funtsak eskuratzeko erraztasunak.

Gainera, lotura kultural eta ekonomikoak estutzeko beharraz aritu dira. Alde horretatik, Lehendakariak Frantziako Gobernuarekin eta bertako ordezkariekin harreman onak izateko bokazioa helarazi dio. Bilera horretan, Deloye kontsularekin batera, Frantziak Iruñean duen ohorezko kontsul Miguel Angel Cazon izan da.

Gogoratuko denez, Nafarroako Gobernuak urrian eskatu zuen Foru Komunitatea "Akitania/Euskadi Euroeskualdean" sartzeara. Nafarroak bi eskualdeekin jadanik 1992an lankidetzaren protokolo bat izenpetu zuen, baina harreman horiek ez zituen sakondu. Euskadi eta Akitaniak aurrera egin zuten eta, hala, 2011n, zuzenbide komunitarioak araututako lankidetzako egitura bat sortu zuten, izaera juridikoarekin, Lurralde Lankidetzako Europako Taldea izenarekin ezagutzen dena.



Deloye kontsula, Barkos Lehendakaria eta Frantziak Iruñean duen ohorezko kontsul Miguel Angel Cazon.